



## DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014

### LANBIDE

1. Ikasle langabeentzako bekak eta laguntzak azpisistemaren ekintzetan eta enpresentzako konpentsazioak, ikasleak lanetik kanpoko praktketan hartzeagatik.
2. Enplegu-eskatzaileen laneratzea errazteko prestakuntza-zentro pribatu nahiz publikoek (Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak ez direnak) emango dituzten prestakuntza-ekintzak finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia.
3. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko diren lanbide-heziketako zentro publikoetan enplegu-eskatzaileak laneratzeko prestakuntza-ekintzak gauzatu daitezen.
4. HEZIBI - Gazteek prestakuntza eta lana txandakatzea.
5. HOBETUZ - Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2014ko ekitaldiko deialdia.
6. HOBETUZ - Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako eskari-prestakuntzarako (ekintza estrategikoak) diru-laguntzen 2014ko ekitaldiko deialdia.
7. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.
8. Jarduera Profesionala Babesteko Unitateak Enplegu Zentro Berezietan
9. Desgaitasunak dituzten pertsonentzat enplegua sortzeko eta mantentzeko laguntzak enplegu-zentro berezietan
10. Enpresa Arruntean Desgaitasunak dituzten Pertsonak Mugagabeki Kontratatzeko Diru Laguntza.
11. Laneratze-enpresetarako laguntzak
12. Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak.
13. Langabezia-prestazioa kobratzeko onuradunentzako Gizarte Segurantzaren kuotak diruz laguntzea. Ordainketa bakarra.
14. Ekintzailetzarako laguntzak
15. Laguntzak Sinteleko langileei
16. Enplegua Sustatzeko Tokian Tokiko Laguntzak
17. SENDOTU programa (Peñascal Fundazioa - SARTU) bazterketa-egoera larrian dauden pertsonen arretarako
18. Eskaintzen Kudeaketa
19. Enplegurako orientazio ekintzak eta zerbitzuak gauzatzeko laguntzen deialdia.
20. Enplegu Zentroen Zerbitzuak garatzeko laguntzak
21. Enplegua desgaitasuna duten eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen laneratzeari eman beharreko babes eta laguntzarekin.
22. Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazteak praktketan kontratatzeako laguntza-deialdia.
23. Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzeako laguntza-deialdia.
24. LEHEN AUKERA programa.



## 1.- Izenburua

**Ikasle langabeentzako beka eta laguntzak azpisistemaren ekintzetan eta enpresentzako konpentsazioak, ikasleak lanetik kanpoko praktketan hartzeagatik.**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko uztailearen 30ekoa (EHAA, 2014ko abuztuak 7), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabakia. Horren bidez, baliabide ekonomikoak esleitzen ditu eta martxoaren 7ko TAS 718/2008 Aginduaren III. kapituluaren aurreikusitako laguntzak 2014an finantzatzeko oinarri arautzaileak egokitzen eta osatzen ditu. Baliabide horiek esleituko dituzte lanetik kanpoko praktikak egiteagatik enpresei konpentsatzeko, eta araudi horietan erregulatutako heziketa-ekintzetan parte hartzen duten langabeei laguntzak eta beka emateko.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Martxoaren 7ko TAS 718/2008 Aginduaren III. kapituluak, martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua garatzen duenak, arautzen ditu prestakuntza-eskaintzako laguntza hauek, enpresei lanetik kanpoko praktikengatik konpentsazioa emateko eta aipatutako araudietan erregulatutako eta Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeentzako beka eta diru-laguntzak emateko.

Hiriko eta hiri arteko garraiorako, mantenurako, ostaturako eta kontziliaziorako laguntzak, desgaitasuna duten pertsonentzako eta genero-indarkeriaren biktimentzako beka eta enpresentzako konpentsazioak, lanetik kanpoko praktketan ikasleak hartzeagatik, tutoretza-, aseguru- eta material-gastuak ordaintzeko.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Ebazpen/Deialdiaren aurrekontu-datuak**

- 2014ko ordainketa-kreditua: 460.000.-

**2014ko betearazpenen aurrekontu-datuak**

- Deialdira bideratutako 2014ko kreditua: 460.000.-
- 2014an betearazia: 360.185.-
- 2014ko betearazpen %: 78,30.-

**Emaitzen azterketa eta gizarte-inpaktuaren baliagarritasuna****Lortutako emaitzak**

Deialdi honen kredituaren kontura ordaindutako laguntzak 2013an hasi eta 2014an

betearazitako prestakuntza-ekintzei dagozkie.

- Hilean ikasleentzako 161 beka eta diru-laguntza ordaintzea.
- Enpresei 798 konpentsazio ordainduta, lanetik kanpoko praktketan ikasleak hartzeagatik.



### 1.- Izenburua

**Enplegu-eskatzailleen laneratzea errazteko prestakuntza-zentro pribatu nahiz publikoek (Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak ez direnak) emango dituzten prestakuntza-ekintzak finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia.**

### 2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki bat argitaratzeko dena. Erabaki horren bitartez, esleitu egiten dira honako diru-baliabideak: Laneratze-zerbitzuko prestakuntza-baliabideari buruzko abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuko II. kapituluan aurreikusitako laguntzak, 2014. urterakoak, finantzatzeko direnak.

- 327/2003 Dekretua, aldatuta.
- 395/2007 Errege Dekretua
- 34/2008 Errege Dekretua
- 62/2014 Dekretua (aldaketa)

### 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabe-talde guztientzako prestakuntza-ekintzak eskaintzea prestakuntza-tipologia guztietan: funtsezko gaitasunak, lanean hasi aurreko prestakuntza, profesionaltasun-ziurtagiri osoak eta modulukoak, txandakako prestakuntza, lanpostuko prestakuntza eta profesionaltasun-ziurtagiriei lotu gabeko prestakuntza; hori guztia talde eta prestakuntza maila desberdinen neurrirako prestakuntza eskaintzeko xedearekin.

### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

#### **Ebazpen/Deialdiaren aurrekontu-datuak**

- 2014ko ordainketa-kreditua: 22.200.000.-
- 2015eko konpromiso-kreditua: 13.800.000.-

#### **2014ko betearazpenen aurrekontu-datuak**

- Deialdira bideratutako 2014ko kreditua: 22.200.000.-
- 2014an betearazia: 21.884.724.-
- 2014ko betearazpen %: 98,58.-
- Deialdira bideratutako 2013ko kreditua: 10.777.954.-
- 2014an betearazia: 10.624.382.-
- 2014ko betearazpen %: 98,58.-

#### **Emaitzen azterketa eta gizarte-inpaktuaren baliagarritasuna**

- 993 prestakuntza ekintza
- 15.066 lagun prestatuta
- Ekintza amaitu eta hilabetera 2.262 kontratu lortu dira. Oraingoan, ez dago 6 hilabete geroagoko daturik. Aurreko urteetan, % 40 ere izan da.

1.- Izenburua

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko diren lanbide-heziketako zentro publikoetan enplegu-eskatzailleak laneratzeko prestakuntza-ekintzak gauzatu daitezten.**

2.- Araua

AKORDIOA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzkoa, lehentasunez EAEko langabetuei zuzendutako prestakuntza-programazioa gauzatzeko dena. EHAA, 189. zk., 2014ko urriaren 6koa.

- 327/2003 Dekretua, aldatuta.
- 395/2007 Errege Dekretua
- 34/2008 Errege Dekretua
- 62/2014 Dekretua (aldaketa)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzak ematea, oro har, lan bat edo gehiago egiteko gaitasun kualifikatzaileak eskuratzeko eta langabeen kualifikazio formalaren maila areagotzeko xedez. Lehentasunez langabeentzako ekintzetan profesionaltasun-ziurtagirietan trebatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Akordio/Deialdiaren aurrekontu-datuak**

- 2014ko ordainketa-kreditua: 3.293.965,30.-
- 2015eko konpromiso-kreditua: 2.195.976,80.-

**2014ko betearazpenen aurrekontu-datuak**

- Deialdira bideratutako 2014ko kreditua: 3.293.965,30.-
- 2014an betearazia: 3.288.205.-
- 2014ko betearazpen %: 99,83.-

**Emaitzen azterketa eta gizarte-inpaktuaren baliagarritasuna**

- 121 prestakuntza ekintza
- 1.776 lagun prestatuta



## 1.- Izenburua

**HEZIBI – Gazteek prestakuntza eta lana txandakatzea.**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Aginduan ezarritako laguntzen 2014ko deialdia. Agindu horren bidez, gazteek prestakuntza lanarekin txandakatzeko Hezibi Programaren oinarri arautzaileak ezartzen dira.

- 1/1997 Dekretua, azaroaren 11koa
- 3/2012 Legea, uztailaren 6koa

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanarekin txandakatzeko lanbide-heziketaren eredia: Prestakuntza-laneko ekintzak lan-espereziaren arloan eta enpresen inguruabarreko eranskinak, lanbide-heziketako ikasleei eta gazte langabeei zuzenduta daudenak, enpresako lan-jarduera ordainduarekin txandakatuta profesionaltasun-ziurtagiri bat edo hasierako lanbide-heziketako titulu bat lortzearen bidez gazte horien lanbide-gaitasunak hobetzeko, eta, era horretan, enpresen premiak eta langileek eskuratutako gaitasunak egokitzen laguntzeko.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Ebazpen/Deialdiaren aurrekontu-datuak**

- 2014ko ordainketa-kreditua: 400.000.-
- 2015eko konpromiso-kreditua: 600.000.-

**2014ko betearazpenen aurrekontu-datuak**

- Deialdira bideratutako 2014ko kreditua: 400.000.-
- 2014an betearazia: 226.131.-
- 2014ko betearazpen %: 56,53.-

**Emaitzen azterketa eta gizarte-inpaktuaren baliagarritasuna**

- 375 pertsonak hartu dute parte txandakako prestakuntzan.



## 1.- Izenburua

**HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2014ko ekitaldiko deialdia.**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2014ko ekitaldiko deialdia, Lanbideren Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onartua 2014ko uztailaren 28ko bilkuran.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketako azpisistemaren prestakuntza-ekimenaren helburua, nagusiki, landunei prestakuntza-ekintzak eskaintzea da, gaitasunak eta kualifikazioa hobetu ditzaten eta banako langileak birkualifikatu daitezten. Landunekin batera, deialdi honetan aurreikusitako ekintzetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emandako langile langabeek parte hartuko dute, eta parte hartzen duten pertsonen % 40 izango dira gehienez. Ekimen horrekin biztanleria aktiboaren bizitzan zeharreko enplegarritasuna eta prestakuntza hobetu nahi da, aldi berean, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea ekarriz.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Ebazpen/Deialdiaren aurrekontu-datuak**

- 2014ko ordainketa-kreditua: 6.692.400.-
- 2015eko konpromiso-kreditua: 8.517.600.-

**2014ko betearazpenen aurrekontu-datuak**

- Deialdira bideratutako kreditua: 8.450.000.-
- Betearazia: 8.450.000.-
- Betearazpen %: 100.-

**Emaitzen azterketa eta gizarte-inpaktuaren baliagarritasuna**

2014an gauzatu diren deialdiaren emaitzak (lehen seihilekoan), honako hauek dira:

- 3.510 ikastaro
- 27.847 ikasle.



## 1.- Izenburua

**HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako eskari-prestakuntzarako (ekintza estrategikoak) diru-laguntzen 2014ko ekitaldiko deialdia.**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, argitara ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2014ko deialdia, zeina Lanbideren Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onartu baitzen.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketako azpistimaren prestakuntza-ekimenaren helburua, nagusiki, landunei prestakuntza-ekintzak eskaintzea da, gaitasunak eta kualifikazioa hobetu ditzaten eta banako langileak birkualifikatu daitezen.

Deialdi honen xedea da: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek programaturiko prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako estrategia-ekintzak) egiteko laguntza ekonomikoen oinarriak ezartzea, 2014rako. Ekintza horiek EAEko enpresen langileen gaitasun eta kualifikazioak hobetzera bideratuta egongo dira. Prestakuntza-ekintza da parte-hartzaile guztientzat komunak diren helburu, eduki eta iraupen sistematikoko irakatsi eta ikasteko prozesua, enpresaren prestakuntza-proiektuan (Prestakuntza Plana) biltzen dena.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Ebazpen/Deialdiaren aurrekontu-datuak**

- 2014ko ordainketa-kreditua: 1.702.800.-
- 2015eko konpromiso-kreditua: 2.167.200.-

**2014ko betearazpenen aurrekontu-datuak**

- Deialdira bideratutako kreditua: 2.150.000.-
- Betearazia: 2.150.000.-
- Betearazpen %: 100.-

**Emaitzen azterketa eta gizarte-inpaktuaren baliagarritasuna**

2014an gauzatu diren deialdiaren emaitzak (lehen seihilekoan), honako hauek dira:

- 574 enpresa parte-hartzaile
- 4.534 ikastaro (talde)
- 16.645 langile



1.- Izenburua

**Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.**

2.- Araua

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeari eta Diru Sarrerak Bermatzeari buruzkoa.
- 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25koa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- Agindua, 2001eko otsailaren 14koa, Oinarrizko Errentaren titularrentzat eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta aldizkako prestazio ekonomikoa eta eskubide subjektibozkoa da, bizikidetzaren unitate batean oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendua.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari dagokionez, aldi behingo prestazio ekonomikoa da, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri gisa araututa dagoena. Etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren alokairu-gastuak ordaintzea du xede, edozein dela ere modalitatea: errentamendua, azpierreantamendua, baterako errentamendua, ostatatzea eta logela-alokairua.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Ebazpen/Deialdiaren aurrekontu-datuak**

4/2013 Legeak, abenduaren 20koak, 2010eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Nagusiak onartzen dituenak, 2014ko ekitaldirako 384.500.000 euro bideratzen ditu, honela banakatuta:

- 334.075.316 euro diru-sarrerak bermatzeko errentara.
- 50.424.684 euro etxebizitzarako prestazio osagarria.

**2014ko betearazpenen aurrekontu-datuak**

- DBEra bideratutako 2014ko kreditua: 334.075.316.-
- EPOra bideratutako 2014ko kreditua: 50.424.684.-
- 2014an DBEn betearazitakoa: 388.048.865.-
- DBEren betearazpen %: 116,16.-
- 2014an EPOn betearazitakoa: 84.350.882.-
- EPOren betearazpen %: 167,28.-

**Emaitzen azterketa eta gizarte-inpaktuaren baliagarritasuna**

**Lortutako emaitzak**

- 65.687 espediente/DBEren titular
- 28.683 espediente/EPOren titular
- Onuradunen batez bestekoa: 117.849

1.- Izenburua

**Jarduera Profesionala Babesteko Unitateak Enplegu Zentro Berezietan**

2.- Araua

469/2006 ERREGE DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak arautzen dituena, Enplegu Zentro Berezien egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2014ko abenduaren 29koa

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Jarduera Profesionala Babesteko Unitateetan laguntzeko langileak kontratatzeko diru-laguntza: Babes Unitateak profesional askotako ekipoak dira, lanpostu batean lanean hasteko prozesuan txertatzea eta lanpostu horretan irautea oso zaila duten Enplegu Zentro Berezietako desgaitasunak dituzten pertsonak izaten dituzten hesiak eta oztopoak gainditzen laguntzeko. EEEtako doitze pertsonaleko eta sozialeko zerbitzuek bermatzen dute desgaitasuna duen pertsona oro osorik gizarteratzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko abenduaren 29ko EBAZPENAREN arabera, deialdi honen xedeko laguntzak finantzatzera 2014an bideratutako baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak dira.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua (2014ko kreditua): 4.000.000 €

Babes Unitateen kopurua: 25

Desgaitasunak dituzten erabiltzaileak: 2.900

Diruz lagundutako arreta espezializatuko teknikariak: -

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 3.918.417 €

Babes Unitateen kopurua: 34

Desgaitasunak dituzten erabiltzaileak: 3.756

Diruz lagundutako arreta espezializatuko teknikariak: 433



## 1.- Izenburua

**Desgaitasunak dituzten pertsonentzat enplegua sortzeko eta mantentzeko laguntzak enplegu-zentro berezietan**

## 2.- Araua

1998ko urriaren 16ko Agindua, Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioarena.

Ebazpena, 2014ko maiatzaren 21ekoa, Lanbideren zuzendari nagusiarena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasunak dituzten langileen laneratzea, gizarteratzea eta integrazio pertsonala erraztea, eta, aldi berean, lan arrunteko erregimenean desgaitasunak dituzten pertsona gehiago txertatzeko bitartekoa izatea. Funtzio hori osatzea desgaitasuna duen langile bakoitzaren esku haren baldintza fisiko, psikiko edo intelektualetara egokitutako lanpostu bat jarrita.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizarte

2014ko otsailaren 12koa EBAZPENAREN arabera, deialdi honen xedeko laguntzak finantzatzera 2014an bideratutako baliabide ekonomikoak 30.000.000 eurokoak dira.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 36.407.465 euro

Langile lan-kontratudunak (urteko batez besteko langile-taldea): 7.400

Ikastetxe-kopurua: 86

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 36.388.032 €

Langile lan-kontratudunak (urteko batez besteko langile-taldea): 8.074

Ikastetxe-kopurua: 81

1.- Izenburua

**Enpresa Arruntean Desgaitasunak dituzten Pertsonak Mugagabeki Kontratatzeko Diru Laguntza.**

2.- Araua

1451/1983 Errege Dekretua

170/2004 ED

1994ko apirilaren 23ko Agindua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 21ekoa

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreikusitako neurrien xedea da berezko nahiz hartutako desgaitasunak dituzten pertsonen laneratzea erraztea enpresa arruntetako lanpostuetan. Funtsean, desgaitasunak dituzten pertsonak kontratatzeko diru-laguntzak ematea da xedea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko maiatzaren 21eko EBAZPENAREN arabera, deialdi honen xedeko laguntzak finantzatzera 2014an bideratutako baliabide ekonomikoak 450.000 eurokoak dira.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 453.907 €

Kontratatutako langileak: 150

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 446.494 €

Kontratatutako langileak: 141



## 1.- Izenburua

**Laneratze-enpresetarako laguntzak**

## 2.- Araua

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren Agindua, 2009ko maiatzaren 4koa.
- Abenduaren 13ko 44/2007 Legea, laneratzeko enpresen erregimena arautzen duena.
- Ebazpena, 2014ko maiatzaren 21ekoa, Lanbideren zuzendari nagusiarena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Eusko Jauriaritzak gizarte-bazterketaren aurka egiteko eta talde ahulenak, bazterketa-egoeran dauden pertsonak edo bazterketa-arriskuan daudenak lan merkatu arruntean laneratzeko politika publikoak praktikan jartzen dituen tresna bat dira laneratzeko enpresak, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu baten bidez, laguntzea ardatz nagusitzat hartuta.

Laneratzeko enpresak sortzeko laguntzak zera dira: erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak merkatu-azterlanak egiteko; azterlan horiei esker jakin ahal izango da enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez.

Laneratzeko enpresen iraunkortasunerako laguntzak hauek dira:

- Inbertsioak aktibo finkoetan
- Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Produzioari laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Laneratzeari laguntzeko adituak diren teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Merkatu-azterketak egiteko laguntza teknikoa
- Prestakuntza.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko maiatzaren 21eko EBAZPENAREN arabera, deialdi honen xedeko laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak honako hauek izango dira: guztira 8.650.000 euro, euretarik 1.850.000 euro 2014ko ordainketa-kredituari dagozkio, 2.725.000,00 euro 2015eko konpromisozko aurrekontuari, 2.725.000 euro 2016ko konpromisozko aurrekontuari eta 1.350.000 euro 2017ko konpromisozko aurrekontuari.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 7.353.290 euro

Laneratze-enpresa aktiboak: 48

Lan-kontratupeko langileak: 525

Laneratzea babesteko diruz lagundutako teknikariak: -

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 5.389.102 €

Laneratze-enpresa aktiboak: 50

Lan-kontratupeko langileak: 491

Laneratzea babesteko diruz lagundutako teknikariak: 149



## 1.- Izenburua

**Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak.**

## 2.- Araua

177/2010 Dekretua. Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak (IV. Kapitulua). Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2014ko otsailaren 12koa

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabe moduan inskribatuta dauden pertsonak kontratazeko diru-laguntzak emango dira, betiere jarraian azalduko diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten eta besteren kontura lan egiten duten langileak, edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordeztzeko kontratatzen badira. Egoera horretan dauden pertsonen honako hauek zainduko dituzte:

- seme-alabak, 27.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Mendekotasun edo muturreko osasun-larrialdi egoeran dauden senideak, 27.1.b) artikuluan ezarritako ahaidetasun-harremana dutenean.

Era berean, diruz lagunduko da aldez aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldiaren luzapena, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa duen beste langile baten lanpostua betetzeko egin baldin bada.

## 4.- Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

2014ko otsailaren 12ko EBAZPENAREN arabera, deialdi honen xedeko laguntzak finantzatzera 2014an bideratutako baliabide ekonomikoak 2.200.000 eurokoak dira.

**Emaitzak:**

Betearazitako aurrekontua: 1.569.090 €

Ebatzitako espedienteen kopurua: 1.491

Enpresa onuradunen kopurua: 491



1.- Izenburua

**Langabezia-prestazioa kobratzeko onuradunentzako Gizarte Segurantzaren kuotak diruz laguntzea. Ordainketa bakarra.**

2.- Araua

1044/1985 Errege Dekretua, 1994eko apirilaren 13ko Agindua eta haren aldaketak: 45/2002 Legearen 4. xedapen gehigarria; D.F. 13<sup>a</sup> del R. D-L 3/2012 Legegintzako Errege-dekretuaren amaierako xedapenetan 13.a; eta 4/2013 Legegintzako Errege-dekretuaren 4. artikulua.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2014ko otsailaren 12koa

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Autonomoen gutxieneko kuotaren % 50 edo Gizarte Segurantzako erregimen orokorraren lan-kuotaren % 100 diruz laguntzea gizarte-ekonomiako enpresa batean bazkide edo autonomo gisa sartzen diren langabezia-prestazioaren jasotzaileei ordainketa bakarreko modalitatean.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko otsailaren 12ko EBAZPENAREN arabera, deialdi honen xedeko laguntzak finantzatzera 2014an bideratutako baliabide ekonomikoak 500.000 eurokoak dira.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 500.000 €

Prestazioa ordainketa bakar gisa jaso duten pertsonak: 600

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 367.824 €

Prestazioa ordainketa bakar gisa jaso duten pertsonak: 521

1.- Izenburua

**Ekintzailtzarako laguntzak**

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpena, 2014ko uztailaren 30ekoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko ekintzaileei bideratutakoak. Hiru ildotan garatzen da:

1. Ekintzaileak izan daitezkeen pertsonentzako laguntzak ekintzailtzako tokiko proiektuen barruan enpresa-idea bat sortzen, aztertzen eta egituratzen bakar-bakarrik aritu daitezten. (Enpresa ideia bat garatzeko laguntzak)
2. Negozio-idea zehatz bat duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak, betiere ekintzailtzako tokiko proiektuen esparruan. (Enpresa proiektu berriak abian jartzeko laguntzak)
3. Enpresa-jarduera bat hasi duten pertsonentzako laguntzak, hura sendotu dezaten. (enpresa jarduera bat sendotzeko laguntzak)

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko uztailaren 30eko EBAZPENAREN arabera, deialdiaren xedeko laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.500.000 eurokoa da. Horietatik, 2014. urteko ordainketa-kredituari 1.000.000 euro dagokio, eta 2015erako konpromiso-aurrekontuari, aldiz, 500.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.540.000 euro

Enpresa-idea garatzeko edo proiektua abian jartzeko babestutako ekintzaileen kopurua: 200

Proiektua finkatzeko laguntza ekonomikoa jaso duten autonomoen kopurua: -

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 1.421.000 €

Enpresa-idea garatzeko edo proiektua abian jartzeko babestutako ekintzaileen kopurua: 276

Proiektua finkatzeko laguntza ekonomikoa jaso duten autonomoen kopurua: 600

1.- Izenburua

**Laguntzak Sinteleko langileei**

2.- Araua

196/2010 ERREGE DEKRETUA, otsailaren 26koa, laneratzea errazteko neurriak eta 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 (abenduarien 16ko 1783/2011 Errege Dekretuak aldatu zuena) enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako langileentzako laguntza bereziak ezartzekoa, eta, AGINDUA, 2012ko apirilaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Sintel enpresaren enplegu-erregulazioko espedienteak eragindako langileentzako laguntza bereziak ezartzea eta horien laneratzea erraztea. Laguntza, hileroko ordaintzekoak, bi motakoak izan daitezke: diru-laguntza berezia eta langile ohiek Gizarte Segurantzarekin sinatutako hitzarmen bereziaren kostua ordaintzeko kopuru gehigarria.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 134.524 €

Langileen ordaintzen hileroko batez bestekoa: 18

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 80.876 €

Langileen ordaintzen hileroko batez bestekoa: 18

1.- Izenburua

**Enplegua Sustatzeko Tokian Tokiko Laguntzak**

2.- Araua

EBAZPENA, 2013ko URRIAREN 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitara ematen da deialdia.

EBAZPENA, 2013ko URRIAREN 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, 2013ko urriaren 17ko Ebazpena zuzentzen duena.

EBAZPENA, 2014KO MAIATZAREN 16KOA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena (deialdia aldatzekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeei laguntzak ematea (udalak, mankomunitateak, kuadrillak, udalerrri-multzoak eta EA Eren mendeko edo hari loturiko erakundeak), jarduteko xede den lurraldearen garapen sozioekonomikoa bultzatzeko eta modernizatzeko balioko duten enplegua sustatzeko proiektuak martxan jar daitezen, Enplegua Sustatzeko Programak 2013-2016 aldirako ezarrita dauzkan enplegurako tokiko ekintza-planen helburuarekin bat etorrita.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko maiatzaren 16ko Ebazpenaren arabera, laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 20.000.000 eurokoa da. Horietatik, 2014. urteko aurrekontu arruntean sartuko dira 16.000.000 euro, eta 2015erako konpromiso-aurrekontuan, aldiz, 4.000.000 euro.

Betearazia: 15.939.816 €

Ebatzitako espedienteen kopurua: 49

Lanpostuen kopurua: 2.071

Ekintzailetza-jarduerak: 1.129

Tokiko garapen-jarduerak: 224

1.- Izenburua

**SENDOTU programa (Peñascal Fundazioa - SARTU) bazterketa-egoera larrian dauden pertsonen arretarako.**

2.- Araua

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.6 artikulua, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua (1998/01/19).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2014ko uztailaren 9koa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Bazterketa egoera larrian edo egoteko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak garatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 228.840 €

Arreta emandako gazteen kopurua: 600

3 hilabete edo gehiagoko kontratuen kopurua: 35

1.- Izenburua

**Eskaintzen Kudeaketa**

2.- Araua

Abenduaren 23ko 326/2003 DEKRETUA, Euskal Lan zerbitzua / Langai izendapenaz, lan-agentziaren eginkizunetan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak sustatzen dituen lan-merkatuko bitartekotza-ekintzen antolamendua eta garapena arautzen duena. (EHAA, 255 zk., 2003ko abenduaren 31koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbideren zentro laguntzaileetarako diru-laguntza, haiek beren lurraldeetan jasotako eskaintzen kudeaketa-ekintzetarako, kudeaketa-tresna komun baten bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 155.565 €

Zentro laguntzaileek kudeatutako lanpostuak: 10.000

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 136.540 €

Zentro laguntzaileek kudeatutako lanpostuak: 8.986

1.- Izenburua

**Enplegurako orientazio ekintzak eta zerbitzuak gauzatzeko laguntzen deialdia.**

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpena, 2014ko urriaren 23koa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako orientazio-prozesuak garatzea, jarraipena bermatzea eta kudeatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko urriaren 23ko Ebazpenaren arabera, deialdiaren xedeko laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 3.774.000 eurokoa da. Horietatik, 2014. urteko ordainketa-kredituari dagozkio 2.264.400 euro, eta 2015erako konpromiso-aurrekontuari, aldiz, 1.509.600 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.241.769 €

Erakunde laguntzaileetan hartutako pertsonak: 36.500

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 817.316 €

Erakunde laguntzaileetan hartutako pertsonak: 73.956

1.- Izenburua

**Enplegu Zentroyen Zerbitzuak garatzeko laguntzak**

2.- Araua

Ebazpena, 2014ko uztailaren 16koa, Lanbideren zuzendari nagusiarena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdiko 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea. Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentroko zerbitzua emateagatik emango ditu laguntza horiek.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko uztailaren 16ko Ebazpenaren arabera, deialdiaren xedeko laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.848.000 eurokoa da. Horietatik, 2014. urteko ordainketa-kredituari dagozkio 1.293.600 euro, eta 2015erako konpromiso-aurrekontuari, aldiz, 554.400 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.293.600 €

Enplegu-zentro hitzartuetan hartutako pertsonak: 45.000

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 1.262.800 €

Enplegu-zentro hitzartuetan hartutako pertsonak: 15.135





## 1.- Izenburua

**Enplegua desgaitasuna duten eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen laneratzeari eman beharreko babes eta laguntzarekin.**

## 2.- Araua

Azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretua

Ebazpena, 2014ko maiatzaren 21ekoa, Lanbideren zuzendari nagusiarena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzadun Enplegu Ekintzak sustatzea, laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten eta desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean txertatzea areagotzeko eta enpresak babesteko tresna gisa, bai kontratatu baino lehen, bai lanpostuan lanean hasi ondoren, laguntzadun enplegu-unitateetako profesional adituek garatutako jardueren multzo baten bidez: aztertzailak eta lan-prestatzailak.

Hauei zuzendua:

Laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden desgaitasunak dituzten pertsonak. Ondorengo pertsonak laneratzea lehenesten da:

- Adimen desgaitasuna, buruko gaitzen bat edo garuneko paralisia duten pertsonak, baldin eta % 33ko edo hortik gorako gutxitasun-gradua onartu bazaie.
- Desgaitasun fisiko edo zentzumenezkoren bat duten pertsonak, baldin eta % 65eko edo hortik gorako gutxitasun-gradua onartu bazaie, edo pertsona gorrak edo entzuteko desgaitasunen bat dutenak, % 33ko edo hortik gorako gutxitasun-gradua onartu bazaie.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren arabera, deialdiaren xedeko laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 850.000 eurokoa da. Horietatik, 2014. urteko aurrekontu arruntean sartuko dira 425.000 euro, eta 2015erako konpromiso-aurrekontuan, aldiz, 425.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 659.558 €

Enplegu lagunduaren lantaldeen kopurua: 8

Kontratatutako desgaituen kopurua: 65

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 620.547 €

Enplegu lagunduaren lantaldeen kopurua: 7

Kontratatutako desgaituen kopurua: 45

1.- Izenburua

**Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazteak praktketan kontratazeko laguntza-deialdia.**

2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabezia egon eta aurretik lan-esperientziarik ez duten edo askorik ez duten gazteak (35 urte baino gutxiagokoak) laneratzea. Hori, haien tituluekin lotutako lanpostuen bidez egiten da, atzerrian lantegiak dituzten euskal enpresetan kontratuen bidez. Kontratuak barne hartzen du aipatutako lantegietan ikaskuntza-aldiak egitea, enpresen premietara egokitutako prestakuntza eta esperientzia profesionala lortzea errazteko eta EAEko enpresa-ehuna laguntzeko neurri gisa.

Hauei zuzendua:

34 urteko edo gutxiagoko gazte prestatuak, EAEn bizi direnak, Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatutakoak, beren tituluarekin lotutako lanpostuetan 6 hilabeteko baino gutxiagoko esperientzia dutenak. Ezingo dira igaro 5-7 urte ikasketak amaitzen direnetik; muga hori ez zaie aplikatzen 30 urtetik beherakoei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko uztailaren 16ko Ebazpenaren arabera, deialdi honen bidez araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 3.050.000 eurokoa da. Horietatik, 2014. urteko aurrekontu arruntean sartuko dira 2.440.000 euro, eta 2015erako konpromiso-aurrekontuan, aldiz, 610.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 3.493.401 €

Gazteei egindako praktika-kontratuen kopurua: 125

Parte hartu duten enpresen kopurua: 45

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 1.730.448 €

Enplegu lagunduaren lantaldeen kopurua: 58

Kontratututako desgaituen kopurua: 37

1.- Izenburua

**Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzeko laguntza-deialdia.**

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2014ko urriaren 1ekoa

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

35 urtetik gorako pertsona langabeak laneratzea beren prestakuntzarekin lotutako lanpostuetan atzerrian lantokiak dituzten euskal enpresetan, horiek lan-merkatuan txertatzea bultzatzeko, haien esperientzia finkatzeko eta EAEko enpresa-ehuna laguntzeko neurri gisa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

2014ko urriaren 1eko Ebazpenaren arabera, deialdi honen bidez araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.525.000 eurokoa da. Horietatik, 2014. urteko aurrekontu arruntean sartuko dira 1.220.000 euro, eta 2015erako konpromiso-aurrekontuan, aldiz, 305.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.220.000 €

Kontratu-kopurua: 36

Parte hartu duten enpresen kopurua: 20

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua: 637.126 €

Kontratu-kopurua: 36

Parte hartu duten enpresen kopurua: 26

1.- Izenburua

**LEHEN AUKERA programa.**

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2014ko uztailaren 30ekoa

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 urtetik gorakoei eta 30 urtetik beherakoei zuzendua) euskal enpresek praktiketan kontratatzea, haien enplegagarritasuna hobetzeko neurri gisa, lanbide-esperientzia lortu eta haien laneratzea sendotzearen bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 30ekoa, deialdi honetako finantzaziora bideratutako baliabide ekonomikoak horrela banatzekoa:

- 4.698.276 euro praktiketako kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik 2.518.276 euro 2014ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.180.000 euro 2015 ekitaldirako konpromiso-kredituari.
- 301.000 euro 2014ko kreditua ordaintzera bideratu dira, 4.3 artikuluan ezarritako zentro kolaboratzaileen enplegu-eskaintzak erakarri, erregistratu eta kudeatzea finantzatzeko.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 2.819.276 €

**Egiazko emaitza:**

Betearazitako aurrekontua (2015eko martxoa): 470.176 €

Praktika-kontratuen kopurua (iraupena >= 6 hilabete): 499